

Gaurkoan

Paulo Agirrebaltzategi (*)

Gutun irekia «Argia»ko lagune

Agur adiskideok:

Orain dela ia hiru urte bota zenuten irrintzia dut gogoan: 1982ko urtarrilean. Ia lau hilabetez isilik egon ondoren. "Agur t'erd! Hemen gara (berriz)" oihukatuz kaleratu zitaten. Bost orrialde oso eman zenituzten orduan krisialdiaren arrazoiak argitzeko; azkenean arrazoi bakarra: Dirurik ez! Kontuak garbi, eta dirurik ez, lanari eusteko... Ez eta gratis lan egiteko ere. "Lan egiteko gogo handia ikusten zaio jendeari. Baita kobratu gabe ere. Eskatzen duena, 'katxarroa' kaleratzea da. Eta horrek ematen dizkigu lanak".

Gogo horren eraginez bota zenuten irrintzia berriro: "Bai, irten egin behar. Euskarzako asteroko bat beharrezkoa... delako". Gogoa eta beharra baturik, Euskal Prentsa-aren irrintzia! Argia!

Izen bat du horrek: *militantzia*, euskararen eta euskal prentsa-aren aldeko ekiletza. Militantzia, hain zuzen, eman zenuten zenbaki berean, artikulugarratz eta mindu bat, Xalbardinek izenpetua. Editorialtazt ulertu nuen nik. Salaketa gogorra eta aukera tinkoa nabari nituen bertan. Irrintziaren arrazoiak. Manifestu bat.

Irabazbiderik gabeko lanbidetan eta ekinbidetan nork bere doaneko lana ematea da militantzia: benetan baliozkotzat jotzen den helburu kolektibo baten alde. Burokraziaren aurkakoa da, hasteko, militantzia, edota militantziaren aurkakoa burokrazia: horrelaxe ulertu zenuten zuen manifestuan, inoren kontzeptuak jasoz eta salatuz. Bataren eta bestearen argigarri agian, zuen isilaldian agerturiko bi aldizkariren berri eman zenuten bina orrialdetan zenbaki hartan: HABE-1 (1981eko abenduan) eta AIZU-0 (1981eko abenduan). Harroa eta aberatsa, bata; apala eta pobrea, bestea.

Militantziaren zelaia aukeratu zenuten, doaneko lanaren indarrean oinarrituz, eta burokraziaren botere dirudunari muzin eginez. Ez zenuten, ordea, militantzia makurtua eta marginala onartu, burokraziaren paternalismoaren eskupekoa; gure hizkuntza nazionalaren eta euskal prentsa herritarraren eskubideko militantzia zentrala aldarrikatu zenuten. Euskararen aldeko militantziaren eskubideak eta eskabideak defenditu dituzue.

Eta berriro hor ikusi zaituztegu, zeuen adore gaztea, zeuen irudimen zabala, zeuen lan ekina eta zeuen aste osoko ordu estuak ematen, ostegunero "Argia" kalean egon dadin. Ba dakigu loarekin eta gauarekin ere zor handitan zaretela; eta, hala ere, ez gaude

inola ere seguru, 4.000.000 haien zorrak kitatuak dituzuenik. Funtzionarismoan funtzionatzen dutenek beren bost astegunak eta beren lanordu ondo kontatuak dituzte irabazbidetzat, eta beste guztia... aisiarako; militantzia militarren dutenek zazpi lanegun eta konturik gabeko mila lanordu eman ohi dituzte beren bizibidetzat, eta horietako gutxi batzu bakarrik hartzen beren ogibide doirako. "Argia"ko adiskideok dakizu ongien horren berri.

Biziera izateaz gain, ekinbidea da militantzia. Irabaziek eusten diote funtzionariari; ekinza berriek eta helburu goragokoez eragiten dizkiote militanteari. Eta azken hiru urteotan, astero "Argia" irakurlearen eskuetan ipini ahal izateaz gain, beste hainbat aldizkari militante inprimatzeko erraztasunak ireki dituzue: "Susa", "Aizu", "Ttu-ttua", etab. Literaturan eta liburutan ere abiatu zarete, asteleheneko "Egunon" zeuen eskuetan hartu duzue, eta, azkenik, urrats berria oraindik: *Euskal Kulturaren Urtekaria*.

Izpiritu molde bat da funtsean militantzia. Fedea eskatzen du, euskararen aldeko militantziak, Herri honen hizkuntza nazionalaren aitormenean oinarritzeko; esperantza, euskararen berreskurapen osoa lortzekoa, da euskal kulturako militantzaren arnasa; bizitzako aukera bat da azkenean euskaltzalearen militantzia.

Errentagarritasun hutsaren errealismoa kalkulatan ari denak ez dauka militantziaren idealismoa kantatzerik. Euskal kulturgintza ez dago negozioaren koordinatuetan sartzerik; horregatik alor horretan ihardun nahi

duenak ez dauka militantziaren bokazioa lan-tzea beste biderik.

Maila ezberdinak daude, ordea, militantzia: ba dago, militantzia *ezinezko bat*, nork bere irabazbiderik eduki gabe, militantziako lanak ateratzeko bere dirua jartzera behartua dagoenarena; ba da militantzia *partiala*, nor bere ogibide egunerokoaz gain, osterantzeko orduak edota irabaziaz militantziaren helburuetarako ipintzen dituenarena. Eta ba da, militantzia *erabatekoa* edo osoa, nork bere ogibide doirako behar dituen lanorduak aparte, bere lanbide osoa doaneko militantzia ematen duenarena. Horien artean ikusten eta miresten zaituztet, "Argia"ko lagunok.

Gauza bat da, ordea, euskal kulturgileek berez erabakian egin duten aukera; eta bestea, euskal kulturaren administratzaileek ezinezko militantziaren itomendira galtzea militantzateak.

Euskaltzale guztioi eskatzen digute militantzia gaur euskarak eta euskal kulturak. Horien berreskurapenerako funtsezkotzat aitortzen, aldarrikatzen, eta eskatzen duzue militantzia zuek.

Baina onartezina da euskaltzaleen mundua bitan banatzea: itolarrian dabilzan kulturgile militanteenä, batetik; aserik dabilzan kulturaren administratzaileena, bestetik.

Adiskideok, irrintzi bat entzun da berriro "Argia"ren egun honetan, euskal prentsa-aren —eta komunikabideen— aldeko militantziara euskaldun denok deitzen gaituena.

Aurrera zuek; eta gu denok.

(*) Euskal idazlea

